



KRONIKA

2018/10/16



HERNANI *Urriak 16*



[albistea](#)//EUSKAL SAGARDOA

Egin Zotz!, Hernanin eta Astigarragan

Euskal Sagardoa Jatorri Deituraren presentzia haunditzeko kanpaina Hernanin ostegunean hasiko da Mikel Garaizabalek gidatutako pintxopotearekin. Astigarragan aldiz, irailaren 27an hasiko da.

HERNANI

2018/09/18 00:00 Asteartea

EGIN ZOTZ! Euskal Sagardoa Jatorri Deituraren presentzia haunditzeko kanpaina jarri da abian. Hernanin irailaren 20tik abenduaren 15era egingo da; Astigarragan aldiz, irailaren 27tik abenduaren 14ra.

Kanpainari hasiera emateko Mikel Garaizabal enologo sumilerrarekin pintxopote gidatua antolatu da. Aurkezpena 18:30etan egingo da Plaza Berrin, ostegunean, eta bertan egongo dira besteak beste, sagardogileak, Hernaniko Ostalariak, Asier Arrese HAZIko zuzendaria eta Hernani eta Astigarragako Alkateak

19:00etan tabernaz taberna sagardoaren inguruko azalpenak emango ditu Mikel Garaizabalek, jendearen parte hartzea sustatuz, Atxur tabernetatik hasita. Zenbait tabernetan Euskal Pintxo potea izango da egun berean, 2 euroan jendeak Euskal Sagardoa eta kalitatezko Euskal produktuak dastatu ahal izango ditu. Astigarragara, irailaren 27an helduko da Mikel Garaizabalek gidatutako Euskal Pintxo Potea. Bertan ere zita, arratsaldeko 7etan izango da, kasu honetan, Joseba Barandiaran plazan.

Ostegunero, zozketak

Kanpainak irauten duen bitartean ostegunero, zozketak izango dira Euskal Sagardoa kontsumitzen duten bezeroen artean eta egunero Euskal Sagardoa kontsumitzen duenak mokadu bat izango du opari. Horrez gain, hainbat ekitaldi izango dira Hernanin eta Astigarragan Euskal Sagardoarekin. Egin zotz! izango da Hernani eta Astigarragan erabiliko den leloa: batetik botilatik txotx egitearen garrantzia azpimarratu nahi delako. Horrez gain, zozketak ere izango direlako eta baita pintxoetako zotzak ere.

Euskal Sagardoa kontsumitzen dutenek Zubeltzuren gindila-azeituna mokadu bat edo Basatxerriren txorizo mokadu bat izango dute opari.

Ostegunero sariak izango dira kontsumitzaileen artean: sagardoa, ice-bag-ak, kamisetak, aurreko mantalak eta urte bukaeran egingo den afari maridatu baterako txartelak.

Euskal pintxo potea eta pintxo pote gidatua

Hilero, Euskal Pintxo Potea egingo da. Euskal Sagardoa, bertako produktu pintxoekin eskainiko da 2 euroan (5 pintxo eta botila 10 euroan).

Euskal Pintxo pote gidatuak ere izango dira Hernani eta Astigarragan, Mikel Garaizabalen eta Euskal Sagardoaren eskutik. Bestalde, animatu diren taberna eta jatetxeetan afari gidatuak izango dira: Hernanin Tripontzi eta Errioguarda tabernetan eta Astigarragan, Ikatza tabernan eta Ipintza sagardotegian.

Kanpaina bukerako festa, abenduaren 14an eta 15ean

Abenduaren 14 eta 15ean berriz, bukaera festa girotuak izango dira. Astigarragan Joseba Barandiaran plazan eta Hernanin Plaza Berrin, Basatxerriko txerri oso bat erre eta emango du raziotan Txomin Parrillak.

Astigarraga eta Hernaniko tabernetan Euskal Sagardoa kontsumitzen dutenek %50 merkeago izango dute ratio bakoitza.

“ EGITARAUA

HERNANIN

Irailak 20: Euskal Pintxo Potea. Mikel Garaizabal enologo eta sumilerrak gidatua. Hasiera, 7etan, Plaza Berrin. Tabernaz taberna Atxurretik hasita.

Urriak 4: Euskal Pintxo Potea.

Urriak 5: Afari maridatua Tripontzi jatetxean, 20:30etan. Euskal Sagardoa eta Tripontzi jatetxeak jarritako afaria uztartuko dira. Erreserbak Tripontzin 943 55 57 24.

Urriak 8-Urriak 21: Bakailo Astea Euskal Sagardoaren Babesletzarekin.

Azaroak 1: Euskal Pintxo Potea.

Azaroak 15: Afari maridatua Errioguarda jatetxean, 20:30etan.

Euskal Sagardoa eta Errioguarda jatetxeak jarritako afaria uztartuko dira. Erreserbak Errioguardan 943 330291

Abenduak 6: Euskal Pintxo Pote Gidatua Herriko tabernetan.

Zita, 19:00etan, Zinkoenean.

Abenduak 11: Afari gidatua.

Abenduak 15: Kanpaina bukaerako festa. ASTIGARRAGAN

Irailak 27: Euskal Pintxo Potea. Mikel Garaizabalek gidatua. Hasiera, 7etan, Joseba Barandiaran Plazan. Tabernaz taberna.

Irailak 30: **Sagar Uzta**.

Urriak 4: Euskal Pintxo Potea.

Urriak 26: Afari maridatua Ipintza sagardotegian, 20:30etan. Euskal Sagardoa eta Ipintza sagardotegiak jarritako afaria uztartuko dira. Erreserbak Ipintzan 688 811 724

Azaroak 1: Euskal Pintxo Pote Gidatua. Hasiera 7etan, Norberto Almandoz plazan.

Azaroak 9: Afari maridatua Ikatza tabernan, 20:30etan. Euskal Sagardoa eta Ikatza tabernak jarritako afaria uztartuko dira. Erreserbak Ikatzan 943 55 49 89.

Abenduak 6: Euskal Pintxo Potea

Abenduak 10: Afari gidatua

Abenduak 14: Kanpaina bukaerako festa.



IRUZKINAK

Gomendatu

Tweet

Partekatu

Zaharretik hasita



Hasi eztabaida...

HASI SAIOA HONEKIN

EDO ERREGISTRATU DISQUS-EKIN ?



Izena

Egin lehen iruzkina.

Harpidetu

Gehitu Disqus zure webgunera

Disqus' Privacy Policy

DISQUS



HERNANI Urriak 16

ESKELAK

HERNANI

Ainhoa Auzmendi Tejedor



Agenda Bateratua

HERNANI

19:30 Etxebizitzaren Astea

Mahai-ingurua

Udaletxeko areto nagusia

19:30 Literatur solasaldia

Gauaren sakonean

Udal Liburutegia

Puri-Purian

Romanen omenezko bankua, ... (1)


Autobus-zerbitzuetan «sekulako murrizketak» ... (2)

.EAJk kutsadura akustikoaren ... (2)

gurean.eus



BIME, udazkeneko jaialdi nagusia

 URIOLA.EUS **KULTURA**



'Tretatxu, lapurren gobernadorea' XVIII. mendeko euskal

Urumeako gida



Komertzio bat bilatu

Bilatu



Biok ileapaindegia

Topatu zure edertasuna gurean

Iragarki merkeak

Emakume arduratsuak helduak zaintzen edota garbitasunean lan egingo luke (etxeak, ofizinak...)

Telefonoa: 654122548

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... (Agustindarren plaza, 4)

Telefonoa: 943332894

+ Ikusi

Tweets por @KronikaNet

idatzi domeinua

Begiratu



Zure domeinua

Zure domeinu-izena libre dagoen jakin nahi duzu?
Begiratu hemen!

Gaur



20°

12°

Bihar



21°

12°

Etzi



19°

13°

[Aemet](#) eskainitako datuak

Azken argazkiak



Lizeagako festak



Karabel eguna 2018



Mugikortasun astea 2018



Euskal Jaiak




Zikuñagako Festak



Auzo Eguna - Latsunbe...

Azken bideoak




Musika taldeek izena eman ...




«Hernaniarrak harritu egiten dira; ...



Agur San Joanei 2018



San Joanak hasita, denak ...



Gazteen Axeri dantza 2018



Memoria gorde, oraina bizi, ...

<p>ARGITARATZAILEA</p>	<p>ZEIN GARA</p>	<p>KONTAKTUA</p>	<p>TOKIKOM</p>				
	<p>URUMEAKO kronika</p>	<p>Larramendi kalea 11 - Hernani 20120 Telefonoa: 943 33 08 99 / 688 660 714 E-maila: kronika@kronika.eus astigarraga@kronika.eus urumea@kronika.eus</p>					
<p>LAGUNTZAILEAK</p>							
							<p>DOBERA KRONIKA BAZKIDEAK</p>

Legezko oharra